

# IRAKASKUNTZA PUBLIKORAKO SARBIDEAREN AZTERKETA

Europako irakasle-gaitasunak oinarri

Maialen Oiartzun Irastorza  
Hezkuntza Zientzien Saila, UPV/EHU

## Sarrera

Espainiako irakaskuntza publiko ez unibertsitariorako sarbidearen egokitasuna ezbaian dago, irakasle profesioa eraldatu arren, sarbidea aldagaitz mantendu delako. Horiek horrela, aldarrikatu berri den LOMLOE legeak sistema berrikusi eta egokitzeko konpromisoa adierazi du. Ikerketa-lan honetan XXI. mendean beharrezkoak diren irakasleak hautatzeko bali ote duen aztertu dugu.

## Arloaren egoera

Europako hezkuntza-politikak irakasle gaitasunak ongi definitzearen beharra azpimarratu du, baina herrialdeen artean ez dago bateratasunik. Horregatik, puntu bateratua bilatzeko asmoz, Europar Batzordeak erreferentziazko gaitasunen esparrua ezarri du. 28 funtsezko gaitasun hiru bloke hauetan banatuta:


● Ezagutzak (11)

● Trebetasunak (10)

● Sinesmenak, jarrerak eta balioak (7)

## Ikerketa-galderak

- Europako markoko zein gaitasun ebaluatzen ditu oposizioak?
- Zergatik ebaluatzen ditu gaitasun horiek?
- Nola eragin diezaioke horrek irakasle profesioari zein hezkuntza-sistemari?




## Metodologia

Azterketa kualitatibo interpretatzailea


- Europako markoa (Europar Batzordea, 2013)
- Espainiako markoa (ECI/3857/2007 Agindua)
- Oposizio-lehiaketa (276/2007 Errege Dekretua)

## Emaitzak

Europa eta Espainiako markoak hiru gaitasun mota zehazten baditu ere, oposizioak bereziki ezagutzetan jartzen du arreta. 28 gaitasun horietatik, **ezagutzei** dagozkien guztiak ebaluatzen dituen bitartean, **trebetasunei** eta **sinesmenei** dagozkien erdia baino ez ditu kontuan hartzen.



Gaitasun moten banaketa European



Gaitasun moten banaketa oposizioan

## Ondorioak

- Sarbidearen arabera, irakasle ona ikasgaia ongi ezagutu eta planifikatzen dakiena da eta ikuskera horrek ez du bat egiten nazioartean balioetsitakoarekin.
- Sarbidea aldatu ez den bezalaxe, irakasle profesioa eta bermatu beharreko gaitasunak ere ez dira modu antolatuan berrikusi.
- Ikuskera zaharkituak irakaskuntzaren paradigma aldaketa oztopa dezake, irakasle profesioari eta hezkuntza-sistemaren kalitateari eraginez.

## Erreferentziak

Europar Batzordea. (2013). *Supporting teacher competence development*. Brusela: European Commission.